

# noaua



## IZAN BAI TALDEA: "MUSIKALKI, GURE SUSTRAIETARA ITZULI GARA"


Metal talde berriak otsailaren 22an eskainiko du lehen kontzertua Aginagako Eliza Zaharrean / 08-09 or.

ARGAZKIA: IZAN BAI



NOAUA

**"Mehatxuen gaintik, herritarren eskubideen defentsan jarraituko dugu" / 06**



USURBIL.EUS

**Usurbilera bizitzera etorritako herritarrei harrera berezia egin zaie / 11**



NOAUA

**Laurok dendak 50 urte osatu ditu, belaunaldiz belaunaldi / 16**



NOAUA

**Jokin Eizagirrek margolan erakusketa bat ipini du Guria tabernan / 18**

**G15** GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

**5. URTEURRENA!**

MILA ESKER ZUEN KONFIDANTZAQATIK!

**SALEROSKETA & ALOKAIKUAK**

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus  
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

**Alsacia & Selva Negra**

IRTEERA 2025eko iraila



Noaok gidatutako  
talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

# Usurbilgo Sagardo Kultura

**Izen-ematea**  
650usurbilbizi.eus

Usurbilgo sagardoaren kultura ezagutzeko bisita  
gidatua herriko sagastietan barrena. \*

**650** Usurbil  
Turismoa  
**USURBIL**  
bizi

**Otsailak 23 eta Martxoak 23**  
**10:00etan**

Irteera: Sagardoaren eskultura (Noaia-ren alboan)

\*5 kilometroko ibilbidea da, eta ez da irisgarria



Udalak salatu duenez, "bizpahiru aste baino ez daude bi argazkien artean".



"Halako jarrerak tokiz kanpo daude gure herrian".

## Agerialdeko frontoia bitan kaltetu dute oso denbora gutxian

Ezezagunek egindako sute ezberdinek kalteak eragin dituzte Agerialdeko frontoiaren

frontisean. Lehen sutea gertatu zenean, Udalak kalteak konpondu zituen baina denbora

gutxira, berriz ere gertaera bera eman zen. "Bizpahiru aste baino ez daude bi irudien artean",

dio Udalak. "Halako jarrerak tokiz kanpo daude gure herrian".

### Garbigune mugikorra, Kalezarren

Otsailaren 13tik aurrera, garbigune mugikorra Kalezarren izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Otsailaren 20an osteguna, garbigune mugikorra Usurbilgo erdigunera eramango dute.

### Kzgunea arratsalde zabalduko dute otsailean

Otsailaren 28ra arte arratsalde zabalik izango da KzGunea, 16:00-20:00 artean. Martxoan goizez irekiko dute:

- Otsailak 17-28, 18:00-20:00 "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

**Informazio gehiagorako:**  
943 023 684

### 1956an jaiotakoak Sekañan batuko dira otsailaren 22an

Otsailaren 22an larunbatarekin, Sekaña jatetxean elkartuko dira eguerdiko 14:00etan. 1956an jaio zirenek eta joateko asmoa dutenek, otsailaren 15a baino lehen eman behar dute izena. Bi telefono zenbaki hauetako batera deitu: 687706363 (Mertxe) 695780696 (Blanka).

### Ate irekiak Zumarte Musika Eskolan

Zumarteren 40. urtemugako hurrengo ekimena otsailaren 14a izango da; ate irekien eguna, 11:00etan hasita Zumarten bertan. Bisita gidatuan parte hartu edota gaztetxoentzako instrumentuak probatu eta sortzeko aukera izango da. Iragan astean itxi zuten hiztordurako izena-ematea.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ugaitz Agirre.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

# Airgam Boys-ak

**A**ste hauetako gertakari batzuek 7-8 urte nitueneko irudi bat ekarri didate gogora: Orioko lehengusuen etxeko pasillo estu eta luzea, lurreko moketa marroia, lehengusuaren Airgam Boys-ak eta gure eskuak haiek mugitzen istorioak asmatu ahala. Guk ez geneukan Airgam Boysik etxean eta guretzat nobedadea zen. Izugarri gustatzen zitzaigun panpintxo haiek hartu eta denon artean istorioak asmatuz batera eta bestera mugitzea. Gainera, panpinak aldatu ere egin zitezkeen: ile horia kendu eta beltza jarri, txapela kendu eta kaskoa jarri, bati ezpata kendu besteari jartzeko... eta horrela, pertsonaia berriak sortu eta istorio berri batekin segitzen genuen.

Ez naiz gogoratzen zein istorio asmatzen genituen. Ez naiz gogoratzen animaliarik edo gurdirik ba ote genuen. Baina ondo gogoan dut Airgam Boysak eskuetan hartu eta gure ahotsak aldatuz antzerkian bete-betean sartzen ginela.

Aste hauetako gertakarietako bi pertsonak ez dira eskuetan Airgam Boysekin agertzen, ez dira txikitako



"Ile horia kendu eta beltza jarri, txapela kendu eta kaskoa jarri... Guk Airgam Boysak aldatzen eta mugitzen genituen; hauek egiazko pertsonak".

jolasei buruz hizketan ari. Eserita ikusi ditugu, irribarrez, hizketan, mundu guztiari beren asmoen eta ideia "freskoen eta bikainen" berri ematen. Esandakoak esanda eta entzundakoak entzunda, eseri aurretik, pribatuan, Airgam Boysekin

## "ESANDAKOAK ESANDA, ESERI AURRETIK, PRIBATUAN, AIRGAM BOYS- EKIN JOLASEAN IMAJINATU DITUT"

jolasean imajinatu ditut: hauek hemendik hona aldatuko ditugu, ile beltzeko guztiak han urrunago, ez-patak kendu eta fusilak eta metrailadoreak jarriko dizkiegu, hemen hotelak kokatuko ditugu, errepideak hemendik hara... Gustura biak, pertsonaia nahieran mugitzen; haien gogoen, gutizien eta interesen araber.

Gu ere horrelaxe aritzen ginen. Baina gu umeak ginen eta izebak prestatutako merienda jatera joaten ginenean bukatzen zen jolasa. Bi pertsona hauek, ordea, ez dira 7-8 urteko umeak. Helduak dira adinez-adinez soilik-, gainerako guztietan ezin esan helduak direnik.

Horregatik, jolasa bukatutakoan, jendearen aurrean agertu dira sortu duten istorioa kontatzera, lasai ederrean. Eta Airgam Boysak ez, baizik eta egiazko pertsonak mugituko dituztela esan digute, krudelkeria eta izua irribarre atzean ezkutatuz eta disimulatuz. Donald Trumpek eta Benjamin Netanyahuak palestinarrekin, israeldarrekin eta Gazarekin egin nahi dutena kontatu digute. Eta okerreña da umetako inozentziarik gabe ari direla.

## "Erleen polinizazioa frutagintzan"

Alkartasuna kooperatibaren tailer formatuko hitzaldia ostegunean izango da, otsailaren 13an, 18:00etan Potxoenean. "Frutagintzan polinizazioa bermatzeko erleek duten garrantzia azalduko da", Mattin Jauregik bideratuko duen saioan. Hitzordurako izena aurrez eman ahalko duzue 943 361 114 telefono zenbakian edo alkartasuna.eus atarian.




Mattin Jauregi izango da hizlaria.

## Helduentzako tertulia filosofikoa Potxoenean

Otsailaren 14rako iragarri dute Usurbilgo Oinherri eta jakin-min elkarteek saio hau, 18:30-20:00 artean Potxoenean. Garazi Aizpuruak bideratuko duen saiorako izena aurrez eman ahalko da doan, usurbilkultura.eus plataforman. 15 laguntzako lekua egongo da.



Garazi Aizpuruak gidatuko du.



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



"Energia kontsumoa %77 murriztea aurreikusten da: urtean 8.800 euro inguru aurreztuko da", Udalak azaldu duenez.

## Udalak LED teknologiarara aldatuko ditu beste 442 argi-puntu

2019. urte inguruan Usurbilgo argiteria publiko guztia LED teknologiarara faseka egokitzeko egutegia zehaztu zuen. Egutegi hartan jasotakoa gauzatzen ari da orduetik, urtero udal aurrekontuetatik zereginotara bideratu ohi duen diru partidarekin.

Oraingo honetan, udalerrri honetako bost zonaldeetan kokaturiko 442 argi-puntu LED teknologiarara aldatuko ditu Usurbilgo Udalak hila-bete honetan bertan; zehaztu dutenez, "121 Atxegalden, 98 Santuenea-Atallun, 47 Munalurran, 98 Galtzaragai-nan eta 78 Artzabalaren".

Horretarako, "2023an eta 2024an jasotako partidak batuta lizitaziora atera du proiektua, eta Leycolanek eskuratu du, 144.142 euroan". Inbertsio honen onura nabarmendu du Udalak. "Energia kontsumoa %77 murriztea aurreikusten da: urtean 8.800 euro

inguru aurreztuko da. Argiteria publikoko argi-puntu bakoitza erregulatzeko aukera emango du, gainera".

### 942 LED argi-puntu

Dagoeneko egun, "2.255 argi-puntu daude herrian, eta 942 LED teknologiadunak dira, dagoeneko: argiteria guztiaren %41. Orain egingo diren lanekin, %60ra igoko da ehuneko".

Aurrera begira, "jauzi kua-litatiboa" eman asmo duela jakinarazi du Usurbilgo Udalak. Urtero udal aurrekontuetatik diru partida bat eginkizun hauetara bideratu beharrean,


"Energia Euskal Erakundeak bultzatutako Gauzatu Energia programarekin bat" egingo du Udalak. "Interesik kobratzen ez duen mailegu bat da: 300.000 euroko inbertsio bat egingo da horren bidez, eta herriko argiteria ia guztia aldatzea ahalbidetuko du (%95 ingurura iritsiz)".

**2.255 ARGIPUNTU DAUDE HERRIAN, ETA 942 LED TEKNOLOGIADUNAK DIRA, DAGOENOKO**

### Lan-poltsak handiagotu nahi ditu Garbitaniak

Gidari-biltzaileen eta peoi balioanitzen lan-poltsak handiagotzeko deialdia plazaratu du Usurbilgo udalerrria bazkide duen Garbitania entitate publikoak. Bere administrazio kontseiluak deialdi honen prozesua eta oinarriak iragan urtarilaren 31n eginiko bilkuran onartu zituen. Hala jakinarazizuen, otsailaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez. Interesdunek eskabideak aurkezteko otsailaren 24ra arteko epealdia izango dute. Bideotatik bideratu beharko dira:

- Garbitania Zero Zabor S.M.-ren bulegoetan: Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu auzoa, Hernani, 20210, 9:00-14:00 artean.
- Posta bidez: Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina. 20120 (Hernani).



Gidari-biltzaileak eta peoi balioanitzak behar dira.



# Kima

MASAJE LEKUA



- KIROL MASAJEA
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

**943 360 321**

[noaua@publizitatea.eus](mailto:noaua@publizitatea.eus)



UEMA-ko lehendakaria, Usurbilgo eta Astigarragako alkateekin batera, Potxoeneako agerraldian.

# "Guk argi daukagu helegite hauek ez dutela heldulekurik"

Udaltzainak hautatzeko prozesuetan euskarazko hirugarren hizkuntza eskakizuna zehazteagatik helegiteak jaso dituzte Usurbilgo eta Astigarragako udalek, iragan asteko Potxoeneako agerraldian berri eman zuten. Helegite horiei erantzungo dietela jakinarazi zuten, bi udalerriotako alkateok eta UEMA-ko lehendakaria elkartu zituen hitzorduan.

Euskararen aurkako oldarraldiak etenik ez duenaren adibide argia izan zen, otsailaren 5ean Potxoenean egindako agerraldia. Hitzorduak Usurbilgo zein Astigarragako udalotako eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) ordezkariak batu zituen. Izan ere, aipatu bi udalek helegiteak jaso dituzte udaltzainak hautatzeko prozesuetan euskarazko hirugarren hizkuntza eskakizuna zehazteagatik.

## "Helduleku sendoak"

Helegite horiei buruzko hausnarketa plazaratu eta erantzuteko agerraldian batu ziren aipatu bi udalerrietako, hurrenez hurren, Usurbilgo eta

Astigarragako alkate Agurtzane Solaberrieta eta Xabier Urdangarin, UEMA-ko lehendakari eta Ataungo alkate Martin Aramendirekin batera. "Guk argi daukagu helegite hauek ez dutela heldulekurik", adierazi zuen Solaberrietak agerraldi hasieran. Helegite horiei erantzun egingo dietela iragarri zuen. "Helduleku sendoak ditugu eta helduleku horietan oinarrituz, egin dugu helegite hauei erantzun. Horregatik esan, eutsi egingo diogula hizkuntza eskakizun horiei, ez soilik legeak ere horretarako aukera ematen digulako, udalerrri euskaldunetan bizi garen herritarren hizkuntza eskubideak berma-

tzeko egin beharreko bidean aurrera egingo jarraituko dugulako ere".

Astigarragako alkateak eman zituen jazotakoari buruzko xehetasunak. Azkeneko bizenpahiru hilabeteotan, udalotan udaltzain lanpostuak betetzeko prozesuak abiarazi dituzte eta aipatu helegiteak jaso di-

## "2. HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EZ DU BERMATZEN EUSKARAZ ZERBITZU DUINA ESKAINTZEA"

tuzte udalok finkatuak dituzten hizkuntza eskakizunen aurka. Ez dira kasu isolatuak, "orohar, UEMA-ko udalerrietan eta beste udalerrri askotan ere" halakoak jaso dituztela ekarri zuen gogora. Denetan, "eskatzen zaiei bigarren hizkuntza eskakizuna aski dela".

### Bermerik ez

Bigarren hizkuntza eskakizun horrek, ordea, ez du bermatzen euskaraz zerbitzu duina eskaintzea herritarrei. Hori hala dela egiaztatzeko orotarazi zituen Urdangarinnek zein diren udaltzain baten egitekoak. Segurtasuna bermatzeaz gain, herritarrekin komunikatu beharra izaten du ahoz nahiz idatziz. "Udaltzain batek ahoz azalpenak eman behar dizkie herritarrei. Ez da soilik segurtasun hutsa, pedagogia ere egin behar du herritarrekin askotan. Azalpen horiek hizkuntza gaitasun maila txukun bat eskatzen dute. Berdin idatziz. Udaltzain batek egin beharreko atestatuetan, txosten edo parteetan, bigarren hizkuntza eskakizuna ez da inolaz ere nahikoa", baldin eta "euskaraz bizi garen eta bizi nahi dugun herrietan herritarrei ahoz zein idatziz zerbitzua euskaraz eta txukun eman nahi badiegu".

Hori sarritan egiaztatu ahal izan dutela orotarazi zuen Astigarragako alkateak Potxoeneako agerraldian; "besteak beste, ordezkapenetan, halabeharrez, agian bigarren hizkuntza eskakizuna duten udaltzain interinoak hartu behar izan ditugunean, kexak jaso ditugulako eta ikusten dugulako bigarren hizkuntza eskakizunak ez duela inolaz ere bermatzen udaltzain horiek behar besteko gaitasuna dutenik herritarrekin txukun aritzeko".

Testuinguru horretan, argi adierazi zuen; "euskaraz bizi garen eta bizi nahi dugun udalotan eta udalerrietan ezinbestekoa da langile pribatu eta publikoek euskaraz jard-

→ teko maila egokia izatea. Eta hori ziurtatzeko, udaltzainen kasuan, hirugarren hizkuntza eskakizuna beharrezkoa dela iruditzen zaigu".

### "Erakunde publikoii dagokigu eredu izatea"

"UEMA-tik babesa adierazi nahi diegu Usurbilgo eta Astigarragako udalei", adierazi zien Ataungo alkate eta UEMA-ko lehendakari Martin Aramendik Usurbilgo eta Astigarragako udalei helegiteon aurrean. Bi udalerrion eredu-garritasuna txalotu zuen hirugarren hizkuntza eskakizuna eskatu izanagatik, "hori delako berme bakarria udalerrri hauetan naturaltasunez herritarrekin komunikatu ahal izateko". Honako hauek ez dira kasu isolatuak UEMA-ko lehendakariaren esanetan. "Azken boladan areagotu egin da euskararen aurkako oldarraldia. Ez du etenik. Hainbat epaien berri izan dugu azken hilabeteotan", baina ohartarazizuen moduan, "epai horien aitzindariak dira era honetako helegiteak. Hauek dira, gero, oldarraldia ereiten dutenak". Argi salatu zuen; "hau ez da kasualitatea, norbaitek nonbait erabakitako zerbaite da. Ez da kasualitatea udalerrri euskaldunak izatea, orain, helegite hauek jasotzen ari direnak".

### "Eredu izatea"

Helegiteok beldurra eragitea dute xede Aramendiren esanetan eta testuinguru horretan, "erakunde publikoii dagokigu eredu izatea, baita euskararen normalizazioan ere. Epailen mehatxuen gainetik, euskararen eta herritarren



UEMA-tik babesa adierazi zieten Usurbilgo eta Astigarragako udalei.

eskubideen defentsan aritzea dagokigu eta horretan jarraituko dugu", gogorarazi zuen moduan, are gehiago, "euskararen biziberritzeak motelaldia" bizi duenean udalerrri euskaldunetan ere. Horregatik, derrigorrezkotzat jo zuen "erabaki ausartak hartzea, gurea defendatzeko eta, batez ere, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko". Bere esanetan, helburu bikoitza dute helegiteok; "beldurra sortzea eta gainerako udalek bide bera har ez dezaten bultzatzea", nahiz eta jakin biga-

**"EZ DA KASUALITEA UDALERRI EUSKALDUNAK IZATEA, HELEGITE HAUEK JASOTZEN ARI DIRENAK"**

ren hizkuntza eskubideak ez duela bermatzen herritarrekiko kalitatezko euskarazko komunikazio duina.

### Deia gainerako udalerriei

Auzitegien mehatxutzat jo duena argia dela zioen, "ez ezazue hortik segi. UEMA-tik, ordea, argi dugu bidea hauxe dela". Horregatik zoriondu nahi izan zituen bi udalak, "herritarren eskubideen defentsan aritzeagatik, eredu izateko konpromisoari zintzo erantzuteagatik eta mehatxuen eta oldarraldiaren aurrean ez makurtzeagatik". Bide honetara batzeko deia egin zien gainerako udalerriei. "Gainerako udalerrri euskaldunei gonbita edo eskaria egiten diegu hauek erakutsi duten bide hori har dezaten; hau da, udaltzainen lanpostuetan hirugarren hizkuntza eskakizuna eska dezaten, azken batean, hori delako euskaraz lasai aritzeko bermea".

## "Irabazi Arte!"-ren lehen atala Sutegin

Azaroan "Go!azen"-ekin egin bezala, Euskal Telebistaren "Irabazi Arte!" telesailaren laugarren denboraldiko lehen atala ikusteko aukera izango da ostiral honetan, otsailaren 14an Sutegin, arratsaldeko 18:00etan eta 19:30etan. Agortu ez badira, gonbidapenak doan eskuratu ahal dira aurrez usurbilkultura.eus plataforman. "Gonbidapenak arduraz hartu, ahalik eta jende gehienak joateko aukera izan dezan", eskatu du Udalak. Usurbilgo udalerrria kide duen UEMA-ren eta Euskal Telebistaren arteko hitzarmenari esker egingo da proiektzioa. Euskarazko ikus-entzunezkoak zabaltzea du helburu, bien arteko iazko lankidetzaren horrek. "Horren baitan, euskarazko telesail arrakastatsuenak udalerrri euskaldunetako zinemetan eta aretoetan estreinatzeo lizentzia du UEMAK". ETB-notsailaren 21ean estreinatu baino aste bete lehenago, UEMA-ren baitako 80 udalerritan proiektatuko da atal hori.

**Otar-Goxo**  
Elizkargaiak  
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

**txirriStra**  
PLATER KONBINATUAK  
BOKATAK · PINTXOAK  
TABERNA  
Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

943 36 11 82  
**EROSKI** / city  
kale Nagusia 10, USURBIL



Ixak Arrutik azaldu digunez, "Larrua Truk taldearen letra batetik aukeratu dugu taldearen izena. 'Esan bai, izan ez', zioten kanta batean, eta oso indartsua da. Disko hau barrura begira idatzita dagoenez, hortik ere badu gure izenak: Izan Bai".

# "Gure sustraietara itzultzeko gogoa genuen"

**IXAK ARRUTI ETA MARTIN LARRAÑAGA** IZAN BAI TALDEKO PARTAIDEAK

Mendeku Itxua taldearen aire bat du Ixak Arruti eta Martin Larrañagaren egitasmo berriak. Izan Bai-k lehen diskoa plazaratu du eta estreinako kontzertua otsailaren 22an eskainiko dute, Aginagako Eliza Zaharrean. Sarrerak [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) web orrialdean eskura daitezke.

**Sustraiak egarri. Diskoko kanta batek izenburu hori du. Gaztaro-ko musika estilora itzultzeko grina nagusitu zaizue akaso?**

**Ixak Arruti.** Bai. Azken lauzpabost urteotan beste proiektu batzuetan aritu naiz. Beste estilo batzuk jorratzen, beste talde batzuetan.... Eta kantari beharrean, bigarren maila batean.

Duela gutxi, sustraietara itzultzeko gogoa piztu zitzaidan. Horregatik, musikalki behintzat, etxera buelta bat bezala bizi dut proiektu hau. Heavy metala egiteko gogoa nuen, txiki-txikitatik entzun duguna eta gazte-gaztetatik

egin izan duguna. Ideia horri segika hasi nintzen kanta batzuk egiten, nire kasa.

**Beraz, kanta berriek ekarri dute Izan Bai taldearen sorrera?**

**I. A.:** Hori da. Kantekin pozik nintzen baina "hau dena grabatu egin nahiko nuke", esaten nion bere buruari. Musika-karen arloan pasa zaidan gauzarik onenetakoa izan da lagunekin jotzea. Horrelaxe, Martin, Ibon eta Urtzirekin ekipoa osatu eta kanta hauek lantzen hasi nintzen. Lehen asmoa zen diskoa grabatzea. Hasierako ideia handitzen joan zen ordea, eta azkenean

talde izaera eman diogu egitasmoari. Diskoa plazaratu dugu eta orain kontzertuak lotzen gabiltza. Hori izan da Izan Bairen istorioa.

**Kanta guztiak zureak dira, Ixak.**

**"BATERIA JASOTA IZAN DUT IA HAMAR URTEZ. EZ DA ERRAZA IZAN, BAINA GUSTURA ARI NAIZ ORAIN"**

MARTIN LARRAÑAGA, BATERIJOLEA

**I. A.:** Hori da. Kanta guztiak egin eta gero hasi nintzen grabazioan pentsatzen. "Norekin grabatuko ditut? Balagunekin". Martini deitu nion lehenbizi, "ei kanta berriak ditut, lagunduko al didazu grabatzen?". Horrela izan zen.

**Mendeku Itxua, Izeberg, Neona, Natali, La Regadera... Proiektu askotan ikusi zaitugu azken urteotan. Bertso musikatueta ere segitzen duzu. Zure pista galduta dugu, Martin. Korrika ikusten zaitugu tarteka, baina musika munduan, zertan aritu zara azken urteotan?**

**Martin Larrañaga.** Bateria jasota izan dut hamar urtez. Mendeku Itxua eta gero, beste istorio batean hasi nintzen baina ez zen atera, eta geroztik denbora asko egin dut bateria jo gabe.

**Baduzu meritua, estilo hau ez baita batere erraza.**

**M. L.:** Ez, ez da erraza. Baina Ixakek pazientzia handia du nirekin. Arazo handiena ordea, non jo izan da. Mendeku Itxua utzi eta gero, lokalik gabe geunden. Eta nik etxean ezin dut bateria jo. Bordatxotik ere entzungo zen! Uda partean ordu asko sartu nituen Zumarten, eta horri eskerrak!

**Baina Haranen badaude entsegu-lokalak, ezta?**

**I. A.:** Bi lokal daude eta bakoitzean zazpi talde. Gure filosofia da lokal horiek gazteei uztea, eta gurea izango den lokal bat alokatzea. Urte t´erdi aritu gara lokal bila eta azkenean topatu dugu bat alokairuan, Ugaldea industrialdean.

**M. L.:** Lokal honetan, oraintsu hasi naiz gustura sentitzen bateria jotzen. Hasi nintzenean, burumakur jotzen nuen eta orain hasi naiz burua altxatzen.

**Zu eta Martin aski ezagunak zarete Usurbilen. Ibon Aginaga gitarrajolea eta Urtzi Olaziregi baxujolea aurkeztuko dizkiguzu?**

**I. A.:** Mendeku Itxua-ren garai-ko lagunak dira. Ibon Mar-



→ kina-Xemeingoa da baina Mutrikun bizi da. Krausk taldean jotzen zuen eta orain Soa taldean ari da. Mendeku Itxua-ren kontzertuetan, Su Ta Garren Jotake jotzera igotzen zen gurekin batera.

Urtzi Olaziregi oiartzuarra da eta Irako sorreran hartu zuen parte. Kudain jotzen ere urte asko egin ditu. Heavy metalaren ingurukoak dira biak, jotzen jarraitzen dutenak, eta inportanteena, oso jatorrak dira!

**Metal kutsuko kantak dira nagusi. Bada rock kutsuko traza duenik. Baladaren bat ere bai... Dena den, metalaren indarra da nagusi.**  
**I. A.:** Izan Baik izenak dioen bezala, ni naizena da diskoan jaso dena. Inoiz ez naiz hain libre sentitu konposatzeko garaian. Heavy metala oso gustuko dut, hori entzun dugu txikitatik. Su Ta Gar, Megadeth, Metallica... Baina asko entzun dut Foo Fighters edota EH Sukarra. Eta beste estilo batzuk ere gustuko ditut. Country-a, adibidez. Musika klasikoa ere asko entzuten dut. Denetarik hartu eta horrelaxe atera zait diskoa.

**20 urte baino gehiago dira Mendeku Itxua taldearekin hasi zinetela. Orduko zaleek zer diote?**

**M. L.:** Konturatu gara garai hartako gure jarraitzaile asko gogotsu zeudela, zertan ari ginen jakin nahian. Garai batean izan genuen publiko hori mantentzen da.

**I. A.:** Publiko mota hau fidela da gainera.

**M. L.:** Zorionez, sentsazioak oso positiboak dira. Gauza batzuk Mendekuren estilokoak dira baina beste batzuk ez.

**I. A.:** Trash kutsu handiagoa da disko honek.

**M. L.:** Baina era berean, kotxean kantatu daitezkeen musika da gurea.

**Mendekuko jarraitzaileak honen zain zeudela, nolabait esatearren.**  
**I. A.:** "Bazen garaia", esan didate batzuk, pentsa.



Diskoa ohiko plataforma digitaletan entzun daiteke. CDa berriz, Aitzaga tabernan eskura daiteke edo kontzertuetan bestela.

**Ixak, lehen aldiz, diskoko letra guztiak zureak dira, ezta?**

**I. A.:** Bat izan ezik. Disko asko plazaratu ditut baina letretan ez naiz asko sartu orain arte. Esku bateko behatzekin zenbatu daitezke nik egindako letrak.

Lehen aldiz jarri naiz idazten. Prozesu pertsonal gogorra pasa dut eta hor nire buruarekin egin dut topo. Lehen aldiz, paper zuri baten aurrean jarri naiz, kanta bakoitzean

**"ERRESPETUA NION LETRAK IDAZTEARI BAINA HORRETARA JARRI NAIZ ETA OSO ONDO SENTITU NAIZ"**

IXAK ARRUTI, KANTARIA

zertaz idatzi behar nuen erabakitzen. Musikan ez bezala, letrak idazteko garaian ez dut errekurtsio asko. Musikan askoz gehiago erreparatu izan dudalako.

Idazterakoan gainera, beti izan dut beldur pixka bat. Niretik egingo dut? Beste baten ahotsetik? Ze punturaino biluztuko naiz? Errespetua nion idazteari. Baina horretara jarri naiz eta oso ondo sentitu naiz.

**"AGINAGAKO EMANALDIRAKO SARRERAK USURBILKULTURA. EUS WEB ORRIAN ESKURA DAITEZKE"**

IXAK ARRUTI, KANTARIA

**Barne borrokak dira nagusi hainbat kantetan (Barne borrokak, Izan Bai, Sutan nago). Bestelako kezka ere islatu dituzu: euskara (Sustraiak egarri), Palestinako txikizioa (Heriotz minez), sare sozialak (Onarpen eske)... Baina orohar hartuta, zuretik asko dago lan honetan.**

**I. A.:** Aipatu dituzun beste kontu sozial horiek hor daude, baina hau barrura begirako disko bat da: izan zaitez zu, maitatu zaitez, erabakiak hartzen dituzunean, onartu itzazu...

**Letra batzuk ilun samarrak dirudite, baina esango nuke badela baikortasun izpi bat denetan. 'Iluntasuna ez da betiko', esatera datorrena.**

**I. A.:** Hori da. Oinarrian, zuloan egondako prozesu ilun hori hor dago, baina itxaropen-kutsu bat dago kanta denetan.

**Diskoa non eskuratu daiteke?**

**I. A.:** Kontzertuetan eta Aitzaga tabernan. Kontzertuetan kamisetak ere jarriko ditugu salgai.

**Otsailaren 22an Aginagako Eliza Zaharran arituko zarete. Izan Bai taldearen lehen kontzertua izango da.**

**I. A.:** Hori da. Eta lehen kontzertua etxe inguruan egin nahi genuen. Gure burua egoera horretan ikusi nahi dugu berriro, gauza teknikoak lantzeko, soinu-probak eta horrelakoak denbora askorekin egin ahal izateko.... Ondoren etorriko diren emanaldiei begira, batez ere. Usurbilen gure moduko musika jotzeko aretorik ez dugunez, Aginagako Eliza Zaharrean egitea pentsatu genuen. Lagunak ditugu eta oso eskuzabal hartu gaituzte beti. Beraz, lehen kontzertua hantxe egingo dugu. Arratsalde partean joko dugu. 18:00etan izango da eta Txiskeroak herriko talde gaztea ere gonbidatu dugu. 18:00etan hasiko dira beraiek. Guk 19:00ak aldera joko dugu. Sarrerak usurbilkultura.eus eskura daitezke, bi eurotan.  
**M. L.:** Bestela, sarrerarik gabe geratzen bada, bertara joanda ere eskuratu ahal izango du.



Barazar kalea, errebote plaza eta frontoi ondoko plaza eraberrituko dira.

## Egonleku berria eta beste bi gune berri izango ditu Zubietak


Usurbilgo Udalak Kimu Bat enpresari esleitu dizkio lanak, eta 30.655 euroko inbertsioa egingo du.

Usurbilgo Udalak eta Zubietako Herri Batzarrak aditzera eman dutenez, "berrikuntzak hiru gunetan izango dira: Barazar kaleko berdegunean, errebote plazan eta frontoi ondoko espazioan. Udalak Kimu Bat enpresari esleitu dizkio lanak, 30.655 euroan".

Barazar kaleko berdegunea izango da egonleku berria. "Egonean egoteko espazio izan dadin egokituko dute, nerabe zein helduentzat. Lau eremu izango ditu: egonleku formala,

egonleku informala, itzaletako eremua eta etzateko eremua".

Gainerako bi guneei dagokienez, "errebote plazan, berriz, plastiko birziklatuaz egindako hiru piknik mahai jarriko dira, platanondoan azpian. Frontoi ondoko espazioan, egun dagoen pagoaren lur eremua lur-berritu eta sakondu egingo da, eta sahats negarti batekin ordezkatuko da. Bi mahai ere jarriko dizkiote ondoan, esertzeko bankuekin batera".



Maketari erreparatuz, Barazar kaleko berdegunea izango da egonleku berria.

## Usurbilgo 2025eko jaiak prestatzen hasteko garaia heldu da

Ezer baino lehen, jaiak noiz hasi eta noiz bukatuko diren zehaztu beharko da eta, bide batez, egun bakoitzean izango den eskaintza zehazteko prozesua abiatu beharko da.

**Lehen bilera, ostegun honetan** Jai Batzordea ostegun honetan batuko da lehen aldiz, arratsaldeko 17:00etan Potoxoenan. "Santixabel jaien antolaketan parte hartu nahi



Otsailaren 13an batuko dira.

duen guztientzako bilera irekia izango da", nabarmendu dute deitzaileek.

## Udalak Whatsapp kanala estreinatu du

Eguneroko udal albisteen berri jasotzeko beste tresna bat ahalbidetu du Udalak. "Whatsapp aplikazioan udalaren kanala bilatu eta jarraitzaile egin behar da, edukien berri izateko", aditzera eman dute.

Usurbilgo Udalak Whatsapp kanala estreinatu du, eguneroko albisteen berri emateko tresna berri gisa. "Udalak, webguneaz eta Udalberri aldizkariaren gain, kontu bana irekia du X, Facebook eta Instagram sare sozialetan, eta Whatsapp kanalarekin albisteak are herritar gehiagorengana iristeko bokazioa du".

Izan ere, "Whatsapp aplikazioaren erabilera oso zabaldua dago, gaur egun. Aplikazioak, banakako zein taldekako me-

zuak bidali eta jasotzeko aukeraz gain, kanalak sortzeko aukera ematen du: jarraitzaile eginda, bidaltzen diren edukiak nork bere telefonoan jasotzeko modua ematen du".

Aldebakarreko tresna da, kanalaren sortzaileak edo igorleak baino ezin baititu mezuak bidali: udal-jarduna, ekitaldiak, bandoak edota salbuespeneko ohar edo abisuen berri izateko erabiliko da. "Era berean, jarraitzaileentzako segurtasun bermea ere badu, igorleak ezin baitu ikusi kanalaren jarraitzaileen inolako daturik".

### Antzeko kanalak martxan

Usurbilgo Emakumeon Etxeak eta Aniztasun Kontseiluak ere Whatsapp kanal bana dute.

## 'Errio' dokumentala saritu dute Indian

Orion eta Aginagan grabaturiko ikus-entzunezkoak dokumental onenaren saria jaso du Indiako Noida izeneko Nazioarteko Film Jaialdian.

Abenduaren 22an Aginagako Eliza Zaharrea proiektatu zen filma, Elkarguneak berak, NOAUA!-k eta Udalak antolatutako hitzorduaren baitan.



Martxoan egingo da sari banaketa.



Otsailaren lehenean udaletxeko harrera ekitaldian parte harturiko herrikideak eta udal ordezkariak.

# "Herriak har zaitzatela merezi bezala"

Usurbilera bizitzera etorritakoei harrera egin zieten Usurbilgo Udalak eta Aniztasun Kontseiluak, hilabete hasieran udalbatza aretoan. Ongi etorri ekitaldi honetan herria aurkeztu nahiz eskuragarri zituzten baliabide nagusien berri eman zieten udal gobernu taldetik. Usurbil harrera herri izateko bideratzen ari den lanketaren norabidean kokatua dago hitzordu hau.

Euskal Herriko txoko gehiagotatik heldutakoak ere baziren, baita mundu zabaleko herrialde ezberdinetatik ere. Denak azken urtebetean etorritakoak gure artera. Etxe aldaketak, lanak, familiak... erakarrita heldu dira, guztion bizi proiektuen elkargunea izango da aurrerantzean Usurbil. Denei merezitako ongi etorria eman nahi izan zieten Usurbilgo Udalak eta Aniztasun Kontseiluak otsailaren lehenean, udalbatza aretoan eginiko ekitaldian. "Plazera da mahai hau hala ikustea", adierazi zien Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, ekialdira joandakoei, ongi etorri ofiziala ematearekin batera. Aurrean zuen ekitaldiko irudia nabarmendu nahi izan zuen, areagotzen doan jatorri aniztasunarena. "Gu-

retzat aniztasuna aberastasuna da, ez mehatxua", gogoratu zuten.

## **Herrikide izatea, jatorria ukatu gabe**

Mundu mailako politika xenofoboak gogora ekarrita, "herri hau harrera herri izan dadin" Udaletik sustatu nahian dabilten lanketa azpimarratu zien Usurbilera bizitzera etorritakoei. Udal gobernu taldetik argi adierazi zuten, "edozein dela ere jatorria usurbildarrasenti dadila" nahi dute, "norbere jatorriari uko egin gabe".

Herria aurkeztu zien alkateak udalbatza aretoan bildutakoei. Urte gutxitan izan duen biztanle kopuruaren hazkuntza nabarmendu zuen; 6.500 inguru ditu egun udalerrri honek, "datu historikoa da, inoiz ez

ditu hainbeste biztanle izan". Usurbilgoa euskaraz bizi nahi duen herri euskalduna dela adierazi zien. "Usurbila datozenei geure hizkuntzara hurbiltzeko aukera ematen saiatzen gara, gure herrian integratzeko modu bat baita". Politikoki eta sozialki konprometitu dagoen herria dela ere gaineratu zien. Horren adibide gisa jarri zuen hondakinen kudeaketa eredua. Euskal kulturgintzari estuki

## **"EDOZEIN DELA ERE JATORRIA USURBILDARRA SENTI DADILA, JATORRIARI UKO EGIN GABE"**

lotutako herri bizitza handikoa da Usurbil eta horretan ere azpimarra egin nahi izan zuen. Sagarraren eta sagardoaren kulturaren murgiltzeko gonbita egin zien baita.

## **Udal baliabideak**

Herria bera aurkeztearekin batera, gure artera bizitzera datozenek eskuragarri dituzten baliabideen berri eman zuten ekitaldian. Harrera protokoloaren baitan harrera zerbitzua abiarazia du Udalak Usurbilen erroldatzen direnentzat. Aurrez adostutako hitzorduaren bidez, Kalezarko Pelaiorenean kokaturiko udal aniztasun saileko teknikariarekin biltzeko aukera dago eta bertan baliabideen gida eskaintzen zaie etorri berriei. Helburua, "finean, herri honetan zer baliabide eta aukera dituzuen ezagutarazi eta laguntzea da". Horien artean, bi nabarmendu zituzten udal gobernu taldetik hilabete hasieran eginiko ekitaldian; batetik, hiztegitxo bat sei hizkuntzetara itzulitako euskarazko oinarritzeko hitzekin.

Bestalde, integrazio komunitarioan laguntzeko Udalak Zabalduz kooperatibarekin iaz abiarazitako HarEman mentoretza sozialeko programa aurkeztu zien. Iaz parte hartu zuten, "herrikide izaten lagundu die eta aurrean ere segiko dugu". Parte hartzeko gonbita egin zieten.

## **Bisita gidatua**

Ekitaldia amaitu ostean, udaletxe aurreko plazan albiste honi atxikia duzuen talde argazkia atera eta Usurbilgo erdigunea hobekiago ezagutzeko aukera izan zuten, 650 Usurbil Bizi herri egitasmotik prestatutako bisita gidatuari esker.

Elizako ondarea edota udalerrri honetako kultur sorkuntzaren nondik norakoen berri jasotzeko aukera izan zuten. Alkateak gogorarazi moduan, "herri honek har zaitzatela merezi bezala".

# "Eztarriz sano gabiltza, ta kanta nahi degu gogoz"

Santa Ageda bezperan, lurra esna zedin kolpeka aritu ziren ikasleak zein Usurbilgo Kantu Taldeko kideak.

Lurrari deiadar egiteko eguna zen. Goizetikiluntzera, lurrean emandako makil hotsez eta koplak giroz joan zen otsailaren laugarren eguna. Bazkalaurretik Usurbilgo erdigunea girotzen aritu ziren Udarregi ikastolako DBH ziklokoak. Egurtzegi izan zuten abiapuntu eta handik Gure Pakea elkarteko egoitza atarira abiatu ziren.

## LHkoak ere, arratsaldez

LHko ikasleak ere bazkalostean atera ziren kalera. Zenbait geldialdi egin zituzten bidean;

besteak beste, Atxegalden, udaletxe atarian edota Askatasuna plaza parean. Tokian tokiko bizilagun edota udal ordezkariei zuzenduriko koplak abestu zituzten.

## Saio jendetsua frontoian

Giro eguzkitsua lagun, kalejiran ibili ziren LH zikloko ikasleak. Helmuga frontoia izan zuten eta hara iritsitakoan, HH ziklokoak zituzten zain. Bi ziklo hauetako ikasle eta irakasleek amaiera bateratua eman zioten Santa Agedako ospakizunei.



Kantu Taldekoek Egurtzegi hautatu zuten kalejirari ekiteko.

## Kantu Taldekoen jira, bertsolariez lagunduta

Usurbilgo kantu taldekoak iluntze partean batu ziren. Koplata eta bertsotan aritu ziren. Izan ere, bi bertsolari herrikide izan zituzten bide-lagun Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzune berritik hasi eta Mikel Laboa plazara arteko kalejiran; Uxue Fernandez Lasa eta Aitor Agirre Za-

pirain. Egurtzegin bertan, Artzabalen edota Bordatxo parean eginiko geldialdietan aritu ziren bertsotan.

Hilabete honen amaieran beste hitzordu bat dute Kantu Taldekoek. Otsailaren 23an, eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik eta Sopela Kantari eta Kilometro-kantu Basauri taldeekin batera arituko dira.



HH eta LH zikloko ikasleek emanaldi bateratua eskaini zuten frontoian.



Bazkalostean irten ziren Udarregi ikastolako Lehen Hezkuntzako ziklokoak.



Zaintzadun eremuak lotu zituen Udarregiko DBH-koen kalejirak.



'Goazen kalera, Usurbil' ekimenak eta Aginagako eskolak bat egin zuten.



Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoako dantzak eskaini zituzten Sutegin.

## Iparrera begira dantzan jarri gintuen Orbeldi dantza taldeak

Orbeldik 'Iparrera Begira' jarri gintuen, otsailaren lehenean eskainitako emanaldiarekin. Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoako dantzak ekarri zizkiguten, "bolantetatik kontradantzetara, jauzietatik makil jokoetara".

Berezia izan zen emanaldia bera, uneoro kide baten hutsunea sumatzen ari zirelako. Horregatik, "gaurko saioa Axierrentzat" eskainia izan zela nabarmendu zuten. "Esperodugu azkar izango dugula gurekin bueltan", desio izan zuten.



Alex Tellok eta Telmo Iruretak filmaren hainbat xehetasun azaldu zituzten.

## 'Animo' filmaren estreinaldiak txalo zaparrada beroa jaso zuen

Otsailaren 7a Alex Telloren eguna izan zen. "Animo" lehen film luzearen estreinaldian, filmean parte hartu duten hainbat lagun bertaratu ziren. Tartean, pelikulako aktore nagusia, Telmo Irureta. Sutegi txiki geratu zen eta filma-

ren amieran, ikusleek solasalditxo batean parte hartzeko aukera izan zuten. Alexek eskerrak eman zizkien bertaratu ziren guztiei eta orain herriz herriko proiektioak egiten hasiko direla iragarri zuten.



Auzi sozialak izan zituzten hizpide otsailaren 2ko ikuskizunean.

## 'Itzal(iko) bagina' bertsoak, itzalak eta kritikak elkarbanatzeko

Bertsoa tresna komunikatibotzat hartuta, Janire Arrizabalaga, Izaro Bilbao eta Araitx Katarain aktoreek auzi sozialak izan zituzten hizpide otsailaren 2ko ikuskizunean: generoa, osasun mentala, familia nuklearra, meritokrazia...

### Itzalen jokoak

Bertsoa eta itzalen jokoanahastu zituzten hiru bertsolari-aktoreek. Ordubeteko saioa biribildu zuten Sutegiko ohol-tzan, dozenaka herritarren aurrean, eta txalo zaparradarekin amaitu zen saioa.



Antzezlanerako sarrerak berehala agortu ziren.

## 'Miñan' antzezlanaren arrakastarekin amaitu zen Kulturaldia

'Miñan' antzezlan arrakastatsurekin amaitu da aurtengo NOAUA! Kulturaldia.

Amets Arzallus eta Ibrahima Balderen liburu arrakastatsua oholtzara eraman dute Ander Lipus eta bere taldeak. Ibrahimaren bidaia eta Euskal He-

rriari bizitzen nola jarri zen erakutsi ziguten aurreko igandean Sutegin.

Artedramak antzerkiera eramandako obrarekin sarrera guztiak salduta zeuden aspal-ditxotik eta publikoak ez zuten hutsik egin.



Ibilaldi guztiak neurtuak izan ziren.



Hiru ibilbide zeuden aukeran.

## Gipuzkoako Orientazio Liga herrikoa Usurbilen abiatu da

Bana, binaka, taldean zein familian. Herriko nahiz kanpoko jende ugari elkartu zen Gipuzkoako Ligako lehen proban.

Orientazio jolasek indarra hartu dute herrian azken urtean, Santuenea eta Aginagan umeentzat antolatutako jolasekin.

Aurreko igandean lotura hori areagotu egin zen, Gipuzkoako 9. Orientazio Ligako lehen proba Usurbilen jokatu baitzen.

Askatasuna plazatik hasi ziren ateratzen partehartzaileak. Hiru ibilbideren artean aukeratzeko parada izan zuten: gorria, ibilbide teknikoa eta kirolarientzat sortutakoa; laranja, ez hain teknikoa, baina orientatzeko ezagutzak eskatzen dituena; eta horia, hasiberrientzat eta familientzat pentsatutakoa.

### Partehartzaile ugari

Hiru ibilbideetan partehartzaile ugari batu ziren. Pro-

bari begira, aldarre ezberdina erakutsi zuten batzuk eta besteek: lasai eta mapan kontzentratuta abiatu zirenak, korrikalariak, despistatua-goak... Denentzat izan zen aukera.

### Ibilerak, neurtuta

Partehartzaile guztiak kronometraje sistema bat eraman zuten kontrol guneetatik pasa zirela erregistratzeko, eta hala inork tranparik ez zuela egin erakusteko.

## 77 ontzi lehiatuko dira larunbat honetan, 31. Oriaren Jaitsieran

77 ontzi lehiatuko dira, modalitate ezberdinetan. Denek Aginagatik Oriarako ibilbidea osatu beharko dute. Arratsaldeko 16:30ean ureratuko dira lehen ontziak.

Larunbat honetan jokatu da Oriaren Jaitsieraren 31. edizioa. Aginagan abiatu eta Orion amaituko da osatu beharreko ibilbidea. Orio Arraunketa Elkartetik jakinarazi dutenez, 77 ontzi lehiatuko dira larunbat honetako edizioan:

- Llagut: 11.
- Jubenilen traineruak: 6.
- Beteranoen traineruak: 31.
- Emakumezko absolutuen mailan: 14.

- Gizonezko absolutuen mailan: 15.
- Guztira: 77.

**Arratsalde partean jokatu da** Iaz baino hamar ontzi gutxiago lehiatuko dira aurten go 31. edizioan. Izen-emate kopuruaren baitan finkatu asmo zuten antolatzaileek probaren hasiera ordua. Abiatzeko hitzordua hilaren 15ean, 16:00etan jarria zuen, baina



Orio Arraun Elkarteak 1995ean hasi zen proba hau antolatzen.

16:30ean ekingo zaio azkenean probari.

### Mapiletik eta Sarikolatik

Ohi bezala, bi modalitateetan lehiatuko dira Oriaren 31. Traineru Jaitsierako parte hartzaileak.

Batetik, 4.000 metrokoan lehiatuko dira hainbat parte hartzaile Aginagako Sarikolatik Oriarantz. Gainerakoek 6 kilometroko ibilbidea osatu-

ko dute baina hauek Mapiletik izango dute irteera.

Orio Arraun Elkarteak 1995. urtean hasi zen proba hau antolatzen, estropaden udako denboralditik haratago, "traineruetan parte hartzen duten arraunlarien prestakuntza fisikoa eta teknikoa urte guztian zehar" lantzen zela ikusirik.

Orduetik, parte hartzaile kopurua hazten joan da.



Besteak beste, spinning egiteko bost bizikleta berri eskuratu ditu kiroldegiak.



Bizikletak garbitzeko gune berri bat jarri dute kiroldegiaren atzeko aldean.

# Hobekuntza gehiago kirol instalakuntzetan

Kirol azpiegiturak hobetzen jarraitzen du Usurbilgo Udalak, Oiaro kiroldegiak bazkideen marka hautsi ondoren. Izan ere, 2024a inoizko bazkide kopuru handienarekin agurtu zuten, 2.663rekin (1.240 emakumezko eta 1.423 gizonezko).

Ohar bidez jakinarazi dutenez, "kirol sailak urtez urte gordezten du kirol instalazioak berritzeko partida bat, eta horien berri eman dute, orain. Guztira, 40.695 euroko inbertsioa egin da". Horren baitan, "gimnasioko materialari dagokionez, spinning egiteko bost

bizikleta berri jarri dira, eta korrika egiteko zinta eta eliptika bana iristear daude. Polea makinarako osagai berriak ere erosi dira".

Horrekin batera, "paperaren erabilera murrizteko helburuarekin, kontsumo baxuko esku lehorgailuak jarri dira.

Era berean, gimnasioko makinak erabili ostean garbitzeko zapi berrerabilgarriak jarri dituzte: egunero garbitu eta aldatzen dituzte".

Bestalde, "bizikletak modu erosoan garbitzeko gune berri bat ere jarri da kiroldegiaren atzeko aldean".

Azkenik, "Kiroldegian zein gimnasioan sartzeko QR irakurgailuak jarri dituzte, Nik patrika digitala app-aren bitartez funtzionatzen dutenak. Administrazio publikoek kudeatzen dituzten zerbitzu desberdinak biltzen dira bertan, eta bazkideen kasuan, B@kQ txartela sartuta, bertan agertzen da QR kodea. Noski, orain arte bezala, txartel arrunta ere erabili ahal izanago da".

Oiaro kiroldegian soilik ez, Harane futbol zelaian ere zenbait berrikuntza iragarri ditu Udalak. "Gipuzkoako Futbol Federazioak udal guztiei helarazitako gomendioari jarraituz, zelaiaren perimetro osoan, barandetan, talkak leuntzeko babesak jarriko dira, datozten asteetan. Partida zein entrenamenduetan ohikoa izaten da zelaiaren ertzeraino korrika iritsi eta baranden kontra jotzea, eta segurtasuna bermatzeko helburuz jarriko dituzte babes horiek".

**"GUZTIRA 40.695 EUROKO INBERTSIOA EGIN DA"**

## "Ibai-Ondo Backyard" proba prestatzeko aukera

Apirilaren 12ko asteburuan Santueneanjokatuko denerronka prestatu edota ekimena ezagutu nahi duenak horretarako aukera izango du larunbatean, otsailaren 15ean, 9:00-12:00 artean. Santueneko frontoitik abiatuta entrena-

mentu saioa iragarri dute, "hiru orduz, zirkuitua eta modalitatea probatu nahi dituenarentzat". Amaieran, hamaiketako eskainiko dute Ibai-Ondo elkartearen. Gogoan izan, orduero 6,7 kilometroko ibilbidea osatzean datza ekimen hau.



Larunbat honetan, 9:00etatik 12:00ak bitartean, Santueneko frontoitik abiatuta.

**Iñaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**ANDATZA TABERNA**  
EGUNEKO MENUA  
ASTEBURUKO MENUA  
KARTA  
RAZIOAK  
OGITARTEKOAK  
8:00-20:30 Asteleheneretik - Asteazkenara  
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera  
Kaleazar Auzoa 12, 08, USURBIL. Tel 943 73 20 27

**Patxi**  
PARRIKAZI JATEXEA  
bazkariak EGUNERO  
afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 • © 688 690 361



Eli eta Patxi Borda anaia-arrebak Laurokeko goxoki artean, negozioa zuzentzen.

# Laurok liburu-dendak mende erdia bete du usurbildarren zerbitzura

## LAUROK LIBURU-DENDA

Mende Erdiko ibilbidea osatu du jada Laurok liburu-dendak. 1974an zabaldu zutenetik, bi aldiz handitu dute denda (egun gozokiak dauden zonaldean hasita), eta eskaintzan ere aldaketa ugari egin dituzte.

Mende erdi bete da herrian ondo baino hobeto ezagutzen dugun Laurok liburu-denda ireki zela; eta liburu-denda diogunean, gozoki denda, jostailu denda eta beste hainbat denda mota etorriko zaizkigu burura. Ez da harritzekoa, egun jabeek negozioa asko zabaldu baitute. Patxi eta Eli Borda anai-arreben denda da egun, baina ezagutzen dituen edonor jabetuko da denda ez zutela beraiek ireki, baizik eta euren amak.

1974ean erabaki zuten Bordatarrek Laurok irekitzea. Herrian denda bat ireki nahi

zuen amak, eta segituan jabetu zen liburu-dendarik ez zegoela: "Lasarten bi liburu-denda zeuden garai hartan eta ama jabeen laguna zen. Haiekin harremanetan egon zen denboraldi batean, eta azke-

**"EZ ZEGOEN IA KOMPETENTZIARIK GARAI HAIETAN, ETA OSO URTE ONAK IZAN ZIREN LEHEN HAIK"**

nean pausua eman eta Laurok irekitzea erabaki zuen", dio Elik.

### Hasiera gozoa

Ikastolarako materiala, liburuak, gozoki batzuk eta gau-

**"PRENTSA HELDUEK IRAKURTZEN DUTE; EGUNKARIAREN BILA ETORTZEN DIRA GOIZERO"**

za gutxi saltzearekin ekin zion negozioak. "Ez zegoen ia kompetentziarik garai haietan, eta oso urte onak izan ziren lehenengo haiek", azaldu du Patxi. 1995ean, Kantoi arropa denda itxi eta Bordatarrek erosi zuten denda handitzeko aukera ikusita. Beraz, hogeitun urtean espazio bikoitza lortu zuten beren produktuak saltzeko.

Gogora ekar dezakegun duela 50 urteko Usurbil, eta nolaez, usurbildarrak. Garai haietan fotokopiagailua oso makina berritzailea zen, eta ez zegoen edonoren esku halakorik izatea ez dendan, ez etxean. Bordatarrek ondo gogoan dituzte fotokopiagailua jartzen lehenak izan zirenean gertatutakoak: "Fotokopia eske etortzen zitzaizkigun herritarrek, eta askok galdetzen ziguten ea zenbat denbora beharko genuen fotokopia hori ateratzen. Momentukoa zela jakitean zur eta lur geratzen zen jendea; pentsatzen zuten orduetako lana zela, argazkiak errebelatzearen pareko edo", jakinarazi du Patxi. Eta ez hori bakarrik, bost pezeta balio zuen prozesua zen (egun 3 zentimo), jendearen ustez merkegia halako prozesu konplexu batentzat. "Ikaragarriko prozesua zela uste zuten eta oso merke egiten zela; horregatik, eskupekoa ere uzten zuen zenbaitek", gehitu du Elik.

Aholkulari lanak ere egin ohi zituen familiak. Egun telebista eta interneteko marketing estrategia onenek esaten digute zer dagoen modan, baina internetik ez zen garaian, jostailuak erostean dendarien aholkuak ezinbestekoak ziren herritarrentzat. Jostailuak erostean dendariaren irizpideen esku uzten zuten hautaketa. Egun, ordea, zer erosi eta zein markakoa oso argi dauka bezeroak. Aholkularitza lan hori galdu egin dela, edo behintzat galzorian dagoela jakinarazi dute Bordatarrek.





Laurok liburu-dendako erakusleihoa, duela hilabete batzuk, fatxadako obrak egiten hasi baino lehen.

### Garai berrietara egokitu behar

Ibilbide honetan, negozioia zabaltzeaz gain, gizartearen kontsumo ohitura berrietara ere egokitu behar izan du familiak. Bideokluba ireki zuten hamarkada batez, eta makinak jarri ere bai negozioia handitu zuten hirugarrenaldian. Internet azken hamarkadetan hartzen ari den indarraren ondorio zuzenak jasan dituzte, eta oraindik ere horretan jarraitzen dute. Duela urte gutxira arte, salmenta garai nagusiak izan ohi zituzten: "Gabonetan jostailu salmenta handia izaten genuen; ikastolan danborrada egiten zenean, danborrak saltzen genituen; inauterietan ere moztorroekin izaten genituen salmenta gehiago; bai eta iraileko ikasurte hasierako materialen salmentarekin ere. Orain hori ia dena galdu egin da. Ikasurte hasierako salmenta horiek mantentzen ditugu nolabait, nahiz eta beheranzko joera duten. Gainontzekoan, ez dugu salmenta gorakada berezirik nabaritzen", adierazi du nahigabez anaia zaharrak.

Pertsona helduenen artean, oraindik dendetan erosteko tradizio horren eragina nabari dutela jakinarazi dute Lauroken jabeek, baina horretan ere beherakada sentitzen dute. "Prensa helduek irakurtzen dute, batik bat, eta goizero etortzen dira egunkariaren bila. Gazteek ez dute prentsarik kontsumitzen, eta egiten badute, Internet bidez izango da. Aldizkariak ere lehen gogotik saltzen genituen, adin bateko emakumeei, batez ere, baina hori ere geroz eta gutxiago erosten dute", jakinarazi du arrebak.

### Egunerokotasunean murgilduta

Eguneroko martxan, hornitzaile askorekin egiten dute lan Laurokeko jabeek. Eli eta Patxirekin batera, Patxiren

emaztea aritzen da dendan lanean. Hiruren artean egiten diote aurre egunerokoari. "Hornitzaile mordoa etortzen zaigu egunero produktuekin. Badirudi lehen begiradan ez direla horrenbeste izango, baina pentsa goxokien kasuan ere, marka askorekin egiten dugula lan. Hornitzaile pila bat ditugu: prentsarena, erlojuena, jostailuetan hainbat, goxokietan ikaragarri...", esan du Patxik. Dendariak ere aholkulari izatetik aholkatu izatera pasatzen dira hornitzaileei esker. Egun, interneteko marketinari esker produktu batzuk modan jartzen dira, eta punta-puntako produktuak izateko aholkatu egiten dituzte Laurokeko jabeak. "Sony Angelak izan ditugu duela gutxi, eta goxokietan ere modak izaten dira. Hornitzaileak sal-

**"OSO GAZTE GINELA HASI GINEN LAUROKEN LANEAN, GURASOEI LAGUNTZEN"**

**"IDEIA BATZUK FUNTZIONATZEN DUTE, BAINA BESTE BATZUK EZ. PROBATU EGIN BEHAR"**

tzeko daude, eta euren aholkuak jarraitzen ditugu produktuak aukeratzera garaian. Batzuek funtzionatzen dute eta beste batzuek ez", azpimarratu du Elik.

### Biharra zalantzan

Halako denden etorkizunaz galdetuta, Bordatarrek beltz ikusten dute datozen urteetako martxa. Herriko negozioen erabateko galera gertatuko dela argi dute, eta Usurbilgo egungo merkataria asko jubilatzeotan daudela kontuan izanda, zeresanikez. Seme-alabek ez dute negozioarekin jarraitu nahi, eta gurasoek ere beste bide batzuk hartzera animatu dituzte. Eurak Laurokekin eta Lauroken hazi dira, baina pentsatzen dute eurekin batera amaituko dela haria. "Oso gazte ginela hasi ginen Lauroken lanean gurasoei laguntzen. 14 urterekin, astean zehar ikasketetan zentratzen ginen eta asteburua iristean lanera etortzen ginen dendara", esan digute anaia-arrebek.

"Hamar bat urterako hiru-rok jubilatuko gara. Hemen jubilatzeoko asmoa daukagu, printzipioz. Hortik aurrera, ordea, ez dugu jarraipenik espero", nabarmendu du Elik. Herriko merkataritzaren etorkizuna ilun ikusten dute, azken urteetako bilakaerari begirata. Ostalaritzan bai, horretan ikusten dute jarraipena eta bizitza, baina ez beste sektore batzuetara bideratutako lanetan. Herrian merkataritza gutxi dago, eta denda berri gehienak kanpotarrek irekitakoak direla jakinarazi dute. "Kanpotik etorritakoek ez dute herriarekin lotura berezirik, eta beraz, berdina zaie urte batzuk barru beste herri batera joan behar badute denda irekitzera", aipatu du Patxik.

Etorkizunean merkataritzarekin zer gertatuko den jakiterik ez dago, baina ikusiko dugu ea hamar urte barru hirurogehi urte ospatzekotan diren Bordatarrak.



Jokin Eizagirre bere Txokoaldeko estudioan, amaitu berri duen koadro batekin.

# "Olio-pinturak magia berezia dauka"

**JOKIN EIZAGIRRE "TXITXO" MARGOLARIA ETA ESKULTURGILEA**

Erakusketa jarri berri du Jokin Eizagirrek, edo Txitxok jendeak ezagutuko duen bezala, Guria tabernan. Euskal Herriko pertsona ezagunen erretratuak eta beste lanen bat ikusteko aukera izango da tabernara hurbiltzen direnentzat, martxoaren 30a bitartean.

## **Gurian erakusketa bat jarri duzu. Nola sortu zen proiektua?**

Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Ruper Ordorika eta aitona-amonak aurkituko dituzue Gurian datozen egunetan. Txokoaldeko zubia ere bada-gor jarrita. 'Aitona-amonak' lan eskultorikoagoa dira. 2023an egin nituen lan horiek.

Mikel Laboaren kasuan, bere arrebak 96 urte ditu, Karmele du izena, eta ezaguna dut alabaren laguna naizelako. Nire lehenengo olio-erretratu da. Euskal Herriko pertsona esanguratsua iruditzen zait Mikel, eta ideia horri jarraiki sortu nituen Ruper, Benito eta aitona-amonak. Gustatu edo ez gustatu, oso profesionalak izan dira eta herri honi nortasuna eman diote. Niko Etxartena ere egin-

da daukat, baina errematatzea falta zait oraindik. Nikoren lana ezberdinagoa da, bera ere bereziagoa delako.

## **Nola ekarri dituzu hain margolan handiak Guriaraino?**

Lienzoan egin ditut olioak, markorik gabe. Dimentsio handi samarreko lanak dira, eta leku handia behar dute. Markorik gabe egiten badi-tuzu, jasotzeko bildu egin

daitezke eta errazagoak dira mugitu zein jasotzeko. Olioak magia dauka, ikaragarri kostatzen zaiolako lehortzea. Kolore bat bestearen gainean jartzean, behar bezala lehortu gabe ez badago nahastu egiten zaizkizu koloreak eta itsusitu egiten da.

## **Zenbat denbora behar izaten duzu halako margolan bat egiteko?**

**"BESTE LAN BATZUETAN DIHARDUT; ESPERO DUT NOIZBAIT HAUXE IZATEA NIRE LAN BAKARRA"**

**"MIKEL LABOA, RUPER ORDORIKA, BENITO LERTXUNDI... HERRI HONI NORTASUNA EMAN DIOTE"**

Lan guztiak ezberdinak dira, eta ez ditut bata bestearen jarraian egiten ere. Batzuetan, lan askorekin aritzen naiz batera, eta denbora kudeaketa horretan ere batzuk denbora gehiago eskatzen didate egun edo aste batzuetan, eta besteek gutxiago. Beraz, eskuartean ditudan proiektu guztien artean nahasketan ibiltzen naiz. Horregatik, zaila da denbora neurketa egitea. Hala ere, pare bat asteko lana izan daitekeela esango nuke. Olio horien antzeko beste bat egiten ari naiz orain. Alvaro Matxinbarrena artistarena eta Josune Lasarena, Mikel Laboaren bilobaren erretratuak, hain zuzen ere. Espresio egokia falta du lanak, xehetasun gehiago...

## **Erretratuak egiteko zeure irudimena erabiltzen duzu edo argazki konkretuetan oinarritzen zara?**

Argazkietan oinarritu naiz. Argazki ona baldin bada, erretratu ondo lantzeko aukera ematen dit eta espresio egokia emateko ere bai.

Benito Lertxundiaren erretratuan, oinarrian erabilitako argazkiarekin konparatuta hobetu egin dudala esango nuke. Argazkian zaharragoa ematen du. Nahiko margo azkarra da, eta ez du hiperrealismora jotzeko intenziorik. Beste nortasun bateko lanak egitea gustatzen zaizkit. Ez dut uste hiperrealismorako behar den gaitasun hori dudarik, edo behintzat lanketa sakonagoa eskatuko lidake, xehetasunetara gehiago jotzea, eta hori lortzeko gogoia eta nahia behar dira. Hori gustatu egin behar zaizu.

## **Margolanekin zabilta gehiago azken aldian?**

Denetarik ari naiz egiten. Margolan abstraktu dezente daukat estudioan, batzuk oso handiak eta beste batzuk formatu txikiagoan.

Pollock margolaria gogorazten didan lanen bat ere badut, denetarik pixkat bat.

Orokorrean, maite ditudan gauzak egiten ari naiz, eta ez margolanak bakarrik, eskulturarekin ere lanean ari naiz. Badituz zenbait proiektu potolo eskuartearen, baina momentuz ezin dut horietaz hitz egin.

### **Zure etxean ere egiten dituzun gauzak jartzen dituzu, edo estudioan gordetzen dituzu lanak?**

Etxean koadrotxo batzuk dauzkagu, baina ez daukagu espazio horren handia ere. Margolan gehienak handi samarrak dira, eta gure etxea xumea da. Ez dauzkagu jarrita gauza gehiegi ere. Horrelako koadro handiak jartzeko etxeak ere oso handia izan behar du.

Estudioan egin eta gordetzen ditut lanak. Materiala bertan gordetzen dut, eta erakusketa bat egiteko beste daukadanean atera egiten ditut. Hala ere, puntu horretara iristeko lan dezente behar dira, eta horrek denbora eskatzen du. Badoa pixkanaka. Hala ere, norbaiti lanen bat interesatzen bazaio, salgai dauzkat. Nire telefono zenbakia daukanak, whatsapp aurkituko du galeria prezioekin eta abar, eta bestela niri galdetuta eros ditza-kete.

### **Noiz hasi zinen estudioan lanean lanbidetza hartuta?**

Badira lau edo bost urte telebista uzteko erabakiarekin batera estudioan buru-belarri lanean hastea erabaki nuenetik. Hamabost bat urte egin nituen Decogarden programako zuzendari eta beste hainbat lan egin ditut bai telebista, eta baita zinemarako ere. Dekorazioaren arloan aritu naiz lanean hamazazpi bat urte nituenetik. Ziklo hori bukatu nahi nuen, edo bukatzeaz zegoen, eta betidanik egin nahi izan dudana bide hau hartzeko aukera eman dit horrek. Beste lan batzuekin nahastuta dihardut honetan, baina espero dut noizbait hauxe izatea nire lan bakarra.



Guria tabernako paretetan eskegi ditu bere koadroak. Martxoaren 30era arte egongo da erakusketa zabalik.

### **Arte Ederrak ikasi zenituen unibertsitate garaian?**

Ez, kontua da oso gazte hasi nintzela artean lanean eta esperientzia handia daukat dekorazioan. Berezkoa dudana zerbait da. Gaitasuna denborak eman dit eta lan asko egiteak ere bai. Anaiekin hasi nintzen eta milaka gauza egin ditugu: pailazoen eszenografia, atrezzoak, aroztegi lanak, eraikuntza... Fase asko pasa ditugu eta horrek ikasketak handia eman dit. Prozesu hori amaituta, banekien nire estudio propioan lan egitera iritsi behar nuela noizbait; hasieratik jakin dut. Kontua da salto hori ematea zaila dela.

### **Oraindik denbora asko falta da, baina batzuk behintzat Santixabeletako maskota zein izango ote den pentsatzen hasiko dira laster.**

Duela lau urtetik pentsatuta daukat ideia. Urtetxo batzuk daramatzat ideari bueltaka, eta elizako puntu batean eskegi nahi nuenez, baimena eskatu nion elizari. Ez didate orain arte eman, ezezkoa jaso nuen. Beraz, bestela egitea pentsatu dut. Naturarekin lotuta dago ideia, niri gustatzen zaidan moduan. Elementu oso bereziak dauzka herritarrekin

lotura bilatzeko. Pieza bakarra izango da, baina aldi berean milaka.

### **Beraz, dagoeneko hasia zara maskota prestatzen?**

Urte batzuetan oso prozesu luzeak izaten dira, 3-4 hilabeteak. Paperez egin beharra dago gero erre ahal izateko. Lehortu egin behar izaten du eta prozesu zaila izaten da. Oraindik ez naiz hasi, baina ideia badaukat.

### **Zenbat maskota egin dituzu?**

Joan zen urtekoa edo aurrekoa 40. maskota izan zen, edo behintzat duela 40 urte hasi ziren maskota jartzen festetan. Tradizio handia du maskotak herrian. Nik ez dakit zenbat egingo nituen. Botikakoei laguntzen hainbat urte pasa nituen, baina gero utzi egin nuen eta ez neukan inolako intentziorik berriro ere mas-

kota egiten hasteko. Prozesu baten amaiera izan zela iruditu zitzaidan momentu hartan, baina egun batean Patxi Azpirozek eta konpainiak erraustegia egin behar zutela eta laguntza tekniko eskatu zidaten. Hurrengo urtean inork egin nahi ez zuela eta berriro erraustegia jarri nahi zutela esan zidaten eta pena eman zidan. Beraz, berriz hartu nuen maskota hartzeko ardura eta olagarroa egin nuen. Gure etxetik ikusteko moduko zerbait egin nahi nuen eta olagarroarekin hasi nintzen. Oso altu jarri genuen, eta oso pintsua zen. Gerora jakin genuen elizako egitura metalikoan jarri genuela, eta hura egurrezko bi piezatxori bakarrik lotuta zegoela. Arrisku puntu bat izan zuen hark, guk geuk jakin gabe, baina zorionez ez zen erori. Hemen jarraitzen dugu maskotarekin lanean ordutik.

### **Horrenbeste denbora hartutako lana erretzen ikusteak ez dizu penarik ematen?**

Bakarren batekin izan dut pena, idiekin, adibidez, baina orokorrean ez. Proposatuta izan dut baten bat erre beharrean nonbait zintzilikatzea edo, baina ez da aurrera atera.

## **"AURTENGO SANTIXABEL JAIETAKO MASKOTA PIEZA BAKARREKOA IZANGO DA"**



Izena emateko galdetegi bat bete behar da. QR kodean duzue eskuragarri.

## Ziortzak elkarbizitza asteburua antolatu du

LH 5 eta 6 mailakoei zuzendua dago ekimena. Beizamako aterpetxean antolaturiko elkarbizitza asteburuan parte hartzeko, otsailaren 14tik 19ra eman beharko da izena.

Aurten ere bai, elkarbizitza asteburua antolatzea erabaki du udaberriko oporraldian Ziortza Gazte Elkarteak, "aurreko urteetan antolatutako Aste Santuetako ekintzak gaztetxoaren artean izandako harrera eta arrakasta ikusita".

LH 5 eta 6 mailakoei zuzenduriko aurtengo asteburu pasa Beizamako aterpetxean antolatu dute, apirilaren 25etik 27ra. "Aurten Beizamako aterpetxean igaroko ditugu hiru egunak. 25 goizean elkartuko gara eta 27 arratsaldera arte prestatu dugun ekintzez baterik programaketa zabalaz gozatzeko aukera izango dugu". Parte hartzeko gonbita egin dute antolatzaileek, "primeran pasako dugu!", jakinarazi die interesdunei.

### Galdetegia

Bi hilabete barru izango den arren, egunotan eman beharko da izena; otsailaren 14an iluntzeko 21:00etan hasi eta hilaren 19ko iluntzeko 21:00ak arte. Izena emateko galdetegi hau osatu beharko da; <https://forms.gle/gwVnD25H8GCsa18w6>

Bestela, argazkiari lotuta duzuen QR kodea ere sortu du Ziortzak. Hori mugikorrekin eskaneatuta galdetegi horretara heltzeko aukera egongo da.

### Plaza kopuru mugatua

"Elkarbizitzak bi gau, autobus zerbitzua eta otorduak barne (lehenengo eguneko bazkaria etxetik eramane beharko da) 70 euroko kostua izango du", ohartarazi dute Ziortzatik. Plaza kopuru mugatua izango du ekimenak. Honenbestez, "eskainitako plaza guztiak betetzeari izen-ematea itxi egingo da. Plazak izen-ematearekin batera esleituko dira; hau da, ez da zozketarik burutuko".

Izena emateko epealdia igaro ostean, eta apirila amaierako asteburu horren aurretik, "izena eman duten gaztetxoek gurasoekin bilera bat egingo dugu informazio gehiago helaraziz; hala nola, irteera eta itzuleraren ordu zehatzak, eramane beharrekoak...".

Ekimenari buruzko argibide gehiago ziortzage@gmail.com helbidera idatzita jaso ahalko dira.



Larunbat honetan, Ostolaza eta Larrañaga Eliza Zaharrean arituko dira.

## Aginaga girotua datozen bi larunbatetan

Otsailaren 15ean eta 22an hainbat hitzordu antolatu dituzte Aginagan:

### Otsailak 15, larunbata, Oriaren Traineru Jaitsiera

- 16:00 Oriaren 31. Traineru Jaitsiera. Bi irteera:
  - Mapiletik: 6 kilometroko probako parte hartzaileak.
  - Sarikatik: 4 kilometroko probako parte hartzaileak.

### Otsailak 15, larunbata, erromeria eta bertso-afaria

- Aginagako Eliza Zaharrean:
- 18:00 Erromeria Ostolaza eta Larrañaga trikitilariekin. Doan.
  - 21:00 Bertso afaria, Andoni Egaña, Julio Soto eta Nerea Elustondorekin.

-Menua: iberikoak, pateak, baserriko oilaskoa parrilan, txerri saiheskiak parrilan, Ezeizako pastelxoak. Ogiak, kafea eta edariak.

Sarrerak: 30 euro usurbil-kultura.eus plataforman edo Eliza Zaharra Elkargunean (astelehenetik ostiralera, 18:00-20:00 artean).

### Otsailak 22, larunbata, Izan Bairen disko aurkezpena

- 18:00 Txiskeroak eta Izan Bai talde berriaren estreinako kontzertua. Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea.
- Sarrera: 2 eurotan usurbil-kultura.eus webgunean.
- Antolatzailea: Eliza Zaharra Elkargunea.

## Pettiren lehen diskoaren 25. urtemugako kontzertua

Mende laurdena bete du musikari eta abeslariaren lehen diskoak. 25 urteotako ibilbideko zuzeneko "XX ta Bortz" diskoa grabatzen ari da. Grabaketa hauetako taldearekin eskainiko du kontzertua Pettik otsailaren 23an 18:30ean Sutegiko auditorioan: Joseba Irazoki (gitarra), Iñigo Telletxea (baxua) eta Igor Telletxea (bateria) eta Ruben Caballero (gitarra). Sarrerak 8 eurotan



Otsailaren 23an Sutegin arituko dira.

eskuratu ahalko dituzue aurrez usurbil-kultura.eus plataforman.

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe bat edo logela baten bila nabil 618773004

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m<sup>2</sup> lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadroko garajea salgai Etxealdian. T685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldari bila gabilta. Ordutegia astelehenetik larunbatera goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00 arte, igande eta jai egunak libre. 661972670.

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase partikularrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. 747446091 Michele

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka zaintza lanak edo garbiketara lanak egiteko lan bila nabil. 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

## BESTELAKOAK

55 kilo inguruko aharia salgai Mahaspildegina. 943 364 461 (12:00-15:00 artean deitu).

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salvatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiaro Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## ZORION-AGURRAK



## Zorionak lara!

Otsailaren 15ean 6 urte jada! Muxu erraldoi bana etxeko guztien partez! Ikaragarri maite zaitugu!

## Boleibola Oiardon

## Otsailak 15 larunbata:

- 12:00 Infantilak:  
-Usurbil  
-Bera Bera
- 12:00 Kadeteak:  
-Usurbil  
-Izukaiz

## Otsailak 16, igandea

- 11:15 Jubenil neskak:  
Usurbil-Aiztondo

## Pilota Usurbilen

## Otsailak 16 igandea, 11:00

- Infantilak binaka 2. Mailan:  
-Pagazpe 2  
-Oiarpe 2
- Pagazpe 1  
-Oiarpe 5
- Kadeteak binaka 2. Mailan:  
-Pagazpe  
-Azkoitia

## Eskubaloia Oiardon

## Otsailak 15, larunbata

- 10:00 Infantil neskak:  
Usurbil KE-Amama Pulpo EK
- 15:30 Jubenil mutilak:  
Usurbil KE-Urangaldeko Pulpo EK
- 17:30 Senior neskak:  
-Urbil-Saizar K.E.  
-Tolosa CF Eskubaloia
- 19:30 Senior mutilak:  
-Saizar Usurbil K.E.  
-Alkar Taberna Corazonistas

## Otsailak 16, igandea

- 09:30-11:00 Eskubaloi eskola.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 14

### USURBIL 'Irabazi Arte!' telesailaren estreinaldia

Sarrerak usurbilkultura.eus plataforman.

18:00/19:30 Sutegin.

### USURBIL Helduentzako tertulia filosofikoa

Izen-ematea doan, usurbilkultura.eus webgunean.

18:30 Potxoenean.

## LARUNBATA 15

### USURBIL "Ibai-Ondo Backyard" probarako entrenamendua

09:00 Santueneko frontoian.

### USURBIL "Ate irekiak", Zumarte Musika Eskolan

11:00 Zumarte Musika Eskolan.

### AGINAGA Oriaren 31. Traineru Jaitsiera

16:30 Mapiletik eta Sarikolatik.


### AGINAGA Erromeria eta bertso-afaria Aginagan

Ikus 20. orrialdea.

## IGANDEA 16

### USURBIL Haurrentzako zinema euskaraz: 'Robotia'

Sarrerak: usurbilkultura.eus  
17:00 Sutegin.



Haurrentzako filma igande honetan eskainiko dute Sutegin, 17:00etan hasita.

## “Robotia”, euskarazko film proiektzioa Sutegin

Euskarazko neguko zine zikloaren baitan, “Robotia” filma proiektatuko dute Usurbilgo Udalak eta Ziortza Gazte Elkarteak igandean, otsailaren 16an, 17:00etan Sutegiko auditorioan. Emanaldirako sarrerak aurrez eskuratu ahalko dira 3,50 eurotan usurbilkultura.eus platafor-

man. Androideen mendeko mundu batean, “neska batek futboleko jokatzearekin amets egiten du, familiak debekatu dion arren. Lagunek haren nahia betetzen lagunduko diote, eta elkarrekin, futbol-zelai barruan zein kanpoan egiteko gai direna erakutsiko diete gutzietei”.

### Usurbilgo jaien inguruko lehen bilera

2025eko herriko jaiak antolatzen hasteko lehenengo bilera deitu du jai batzordeak ostegunerako, otsailaren 13rako, arratsaldeko 17:00etan Potxoenean. Festa hauen antolakuntza lanetan parte hartu nahi duen norbanako zein eragile oro dago gonbidatua irekia izango den hitzordu honetara. Lehen saio honetan erabakiko dute, besteak beste, jaiak noiztik noiz arte izango diren.

## Bisita gidatuak

**Otsailak 22, larunbata**  
11:00-12:30 Salbatore Elizaren ondarea ezagutzeko bisita gidatua eta organo erakustaldia.

**Otsailak 23, igandea**  
10:00-13:00 Usurbilgo Sagardo Kulturari buruzko bisita gidatua.

**Otsailak 26, asteazkena**  
10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

**Otsailak 28, ostirala**  
10:00-11:15 Zaintza-aren Usurbil.

**Izen-ematea:**  
650usurbilbizi.eus

## "Heriotzak Eduardo du izena"

Formol Laborategiaren eta Susa Argitaltearen poesia saioa otsailaren 21ean 20:00etan, Sutegin. “Esperimentu bat da, soinu instalazioa, performancea eta antzerkia uztartuko dituen”. Sarrerak eskuragarri usurbilkultura.eus-en.


**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
· eguneko menua · asteburuko menua  
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.


**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8, USURBIL  
943 37 00 08

**Okindegia-Gozotegia**  
LABE-GOXO

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**  
www.noaua.eus



[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus) 



**EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA LORTU ABANTAILAK!**

# TXOTX!!

## URDAIRA

### Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak eta Astearteak itxita

  @urdairasagardotegia | [www.urdairasagardotegia.com](http://www.urdairasagardotegia.com)

[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com)



## ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Jai egun gauak  
**ITXITA**

\*Aurten ez da Txotx-ik egongo,  
sagardoa botilan

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) •  943 55 69 81



[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



## SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN  
ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA  
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10  
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
[info@aginagasagardotegia.com](mailto:info@aginagasagardotegia.com)  
[www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



Astelehena eta Asteartea: **ITXITA**  
Asteazkena eta Osteguna: **20:00-00:00**

## AIALDE BERRI

SAGARDOTEGIA

 **943 36 50 31**

Ostirala eta Larunbata: **13:30-18:00 / 20:30-01:00**  
Igandea: **13:30-18:00**

 **Santu enea Aialde-berri, 20170, Usurbil**